


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

TESTUINGURUA ETA BERBAZKO-ESTRATEGIAK:  
HURREN-BIKOTEEN OSAERA SOLAS ERAKO  
AHOZKO BI MINTZAMOLDETAN

Egilea: Elorri Ramirez Aldasoro

Tutorea: Leire Diaz de Gereñu Lasaga

Euskal Ikasketetako Gradua (UPV/EHU)

Euskarazko ahozko testuen berbaldiaren azterketa

2022/2023 ikasturtea

## LABURPENA

Lan honetan ahozko solasaren azterketaren esparruari helduko diogu, eta bereziki hedabideetako elkarrizketa generoari begira jarriko gara, honek mintzamolde gisa har ditzakeen ezaugarri batzuen azterketara mugatuz. Elkarrizketaren barruan solasaren funtzionamenduaren ikuspegi orokorretik abiatuta -generoaren goitik beherako ikuspegia hartuta- bereziki hurren-bikoteen osaerari erreparatuko diogu, hauek izanik solasaren alternantzia printzipioan eraikitzen diren unitate dialogal minimoak. Zehazki, azterketa enpirikoa egiteko, euskarazko hedabideetako bi saiotako elkarrizketak hartuko dira: *Azpimarra + eta DidaGaztea*. Biak ala biak hedabideetako elkarrizketak izanda ere, bai helburuz eta bai mintzamoldez ezaugarri ezberdinak erakusten dituzte (Gabirondo, 2020; Gutierrez, 2020), eta testuinguruaren eta berbazko-estrategien artean dagoen harremanean sakondu gura da: testuinguruak hurren-bikoteen osaeran eraginik duen ikusteko. Azken hamarkadetan hedabideek entzuleengana gerturatzeko garatu dituzten estrategiak medio, hala nola bernakularizazioa edo eta kode-alternantzia (Elordui, 2016), ahozko solas espontaneoaren zenbait ezaugarri ikus daitezke hedabideetan.

Lan honetan, aukeratutako saioetan ageri den solasaren antolamenduan hurren-bikoteen sistema ezaugarrituko da, hauen osaera definitu, testuinguruak berbazko-estrategietan duten eragina ikusteko. Corpuseko bi saioak elkarrizketak badira ere helburu eta funtzio desberdina duten saioak dira. *DidaGaztea* izaera ludikoa duen saio bat da, eta *Azpimarra +*, berriz, informatiboa eta argumentatiboa.

Lana bi atal nagusitan banatuko da. Lehenengoa atal teorikoa izango da, eta bertan, azterketa ulertzeko beharrezkoak izango diren oinarriak bildu dira. Hasteko, komunikabideetako elkarrizketak genero bezala dituen ezaugarriak deskribatu dira, ondoren, solasa gertakari diskurtsibo moduan ezaugarritu da, haren egitura eta bereizgarriak erakutsiz, jarraian, hurren-bikoteen definizioa eta motak. Bigarren zatian, atal praktikoari heldu zaio: helburua eta hipotesia azalduko da lehenik, ondoren corpusa azalduko da eta amaitzeko egin den azterketaren emaitzak azalduko dira.

Bi saio hauetako hurren-bikoteen analisiak erakutsi digu bi saioetan solasaren egituratze ezberdinak sortzen direla. Alde handia ikus daiteke elkarrizketa mota batetik bestera eta hurren-bikoteen osaerari erreparatzea eraginkorra izan da elkarrizketaren

helburua eta erabiltzen diren berbazko-estrategien arteko lotura erakusteko garaian. *DidaGaztea* saioan parte hartzen duten kazetari eta kolaboratzaile kopuruak, hartzailearen ezaugarriak, saioaren izaera ludikoak eta hizkerari dagozkion beste estrategia batzuk hautatu izanak ahozko solas espontaneoaren ezaugarri batzuk agertzea ekartzen dute. Hedabideetako bestelako elkarrizketa formalagoetan baino gainjartze eta mozketa gehiago izateak eta etengabe ageri diren solaskidetza agerraldiek eragina izango dute hurren-bikoteen osaeran. *Azpimarra* + saioaren helburua gaurkotasun sozial eta politikoaren inguruko saio informatibo formala izanik, oso bestelakoa da solasaren egituratzea, solas espontaneotik gehiago urrunduz. Azterketak ondorioztatzen utzi du testuinguruak mintzamoldea baldintzatzen duela, baina era berean, lokutoreek mintzatzeko aukeratzen dituzten berbazko-estrategiek ere testuinguru diskurtsibo zehatz bat eraikitzen dutela saioaren izaerari erantzuteko.

Hitz-gakoak: Hurren-bikotea, solaskidetza agerraldia, testuingurua.

## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>5</b>
<b>2.</b>	<b>ATAL TEORIKOA</b> .....	<b>6</b>
	2.1 Komunikabideetako elkarrizketen makroegituraren ezaugarri nagusiak.....	6
	2.2 Solasa.....	7
	2.2.1 Testuinguruaren garrantziaz.....	10
	2.3 Hurren-bikoteak.....	10
	2.4 Solaskidetza agerraldiak hurren-bikoteen osaeran.....	14
<b>3.</b>	<b>ATAL PRAKTIKOA</b> .....	<b>15</b>
	3.1 Lan metodologia.....	15
	3.2 Azterketaren helburua.....	15
	3.3 Hipotesia.....	15
	3.4 Corpusa.....	16
	3.4.1 <i>DidaGaztea</i> .....	16
	3.4.2 <i>Azpimarra +</i> .....	16
	3.5 Metodologia.....	17
	3.6 Emaitzak.....	18
	3.6.1 <i>DidaGaztea</i> saioko emaitzak.....	18
	3.6.1.1 Elkarrizketaren makroegitura.....	19
	3.6.1.2 Hurren-bikoteen osaera.....	20
	3.6.2 <i>Azpimarra +</i> saioko emaitzak.....	24
	3.6.2.1 Elkarrizketaren makroegitura.....	24
	3.6.2.2 Hurren-bikoteen osaera.....	26
<b>4.</b>	<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>27</b>
<b>5.</b>	<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>29</b>
<b>6.</b>	<b>ERANSKINA</b> .....	<b>32</b>

## 1. SARRERA

Ahozko diskurtsoen generoaren barnean askotariko mintzajardunak daude, baldintza komunikatiboek baldintzatuta egon ohi direnak (Garcia-Azkoaga, 2015). Lan honetan, euskarazko hedabideetako bi elkarrizketa generoren deskribapenean sakonduko da, biak ala biak elkarrizketak izanagatik ere, solasaren antolamenduan erakusten duten berezitasunei erreparatuz: alde batetik, Gaztea irratiak eskaintzen duen *DidaGaztea* saioko elkarrizketak aztertuko dira, eta bestetik, ETB1eko Azpimarra saioko *Azpimarra* + ataleko elkarrizketak. Bietan solasa oinarri den elkartrukea izanik ere, testuinguruko parametroen komunikazio baldintzak, hau da testuinguruak (helburua, partehartzaile kopurua, gaiak, orientazio diskurtsiboa, e.a.) ezberdinak dira, eta ondorioz, berbazko elkartrukea gauzatzerakoan solasak egituratze estrategia ezberdinak izango dituela uste da. Lan honetan bi saioren elkarrizketen azterketa enpirikoa egingo da transkribaketan bidez, zehazki, solasaren egitura konbentzionala aztertzeko erabiltzen den unitate dialogal minimoak diren hurren-bikoteak aztergai hartuta. Hurren-bikoteen antolamenduei erreparatuz solas erako bi testu nola egituratzen diren aztertuko da.

Euskarazko hedabideetako ekoizpena ekarpen handikoa da euskararen normalizazio bidean, Larrinagak (2019) dioenaren harira. Gure gizartean urte gutxitan euskara ia galtzeko zorian egotetik gizarteko esparru edo alor askotan presente egotera igaro da. Hizkuntza gutxituen kasuan hedabideek funtzio garrantzitsua betetzen dute hizkuntzaren biziberritzerako eta normalizatorako, izan ere, hizkuntza eta kultura sustatzen eta zabaltzen dute hizkuntzari balio sinbolikoa emanez eta estereotipoak hautsiz, gainera, hiztunak ahalduntzeko bidea eskaintzen dute, besteak beste (Morón & Garaio, 2020). Gutierrezen arabera (2020) euskarazko komunikabideek hizketa moduak eta hizkuntza eredu askotarikoak eskaintzen dizkigute etengabe berrikuntzak eta egokitzapenak eginez, berez, aldakorra den komunikazio arloa baita. Hedabide askoren nahia hizkuntzari prestigioa ematea da eta gertuko erabiltzaile, hiztun euskaldun horiek dituzte jomuga. Euskararen kasuan, Barandiaranek (2017), soziolinguistikak hamaika aldiz erabili duen arnaguneen kontzeptua berrartzen du, eta uste du orain arte “arnagunetzat” hartu diren eremuei beste begirada batekin begiratu behar zaiela, eta orain arte arnagunetzat hartzen genituen espazioez gain beste arnagune batzuk berrizendatu edo gehitu behar direla: hedabideak eurak.

Azken hamarkadetan, kazetaritzaren esparruan orokorrean eta zehazki hizkuntzen erabilerari dagokionez, estrategia komunikatiboak aldatzeko joera nabarmen garatu da

entzuleak erakarri nahian, mintzamolde dinamikoagoak sortuz, hizketa modu erlaxatuagoak eta herriko gai hurrekoak erabiliz, adibidez (Etxebarria, 1996). Honez gain, inprobisazioari eta euskalkien erabilerari, bernakularizazioari ateak ireki zaizkio (Elordui, 2016). Azken hamarkadetan, hedabideek haien ikusgarritasuna bermatzeko estrategia propioak garatu behar izan dituzte, haien lehentasuna audientziaren partehartzea sustatzea den heinean. Hedabideek bide berriak esperimentatu eta hautatu izanak, hizketa ekintza ugariagoak sortzea ekarri du, eta horrek kazetaritza genero tradizionalen garapenari sakon eragin die, adibidez, solas erako elkarrizketak era askotakoak dira gaur egun, eta egituratze estrategia aberatsak eta bereizgarriak erabiltzen dituzte (Gabirondo, 2020; Gutierrez, 2020). Testuinguruari erreparatzea beharrezkoa da, izan hitzezko inguruneari edo izan komunikazioaren beraren egoerari (Charaudeau & Mainguenu, 2005). Baina lokutoreak aukeratzeko dituen berbazko-estrategiek ere esateko handia dute zentzu honetan testuinguru irudikatzean, eta beraz, elkartruke jakin batean elkarrizketatzaile edo kazetariak egiten dituzten berbazko-estrategien aukerak erabat esanguratsuak dira. Testuinguruaren eta berbazko-estrategien arteko langintza batean eraikitzen da testua (Koch & Oesterreicher, 2007) eta horrek solasaren barruko egituratzean eragiten dituen aldaketak eta aukerak deskribatu gura dira hurren-bikoteei begira, zehazki.

## 2. ATAL TEORIKOA

Atal honetan, komunikabideetako elkarrizketen egiturari buruzko hainbat osagaien berri emango da, ondoren, solasa zer den eta ahozko mintzamoldearen hainbat ezaugarri adieraziko dira. Ondoren, hurren-bikoteei buruz jardungo da. Baita solaskidetzaren agerraldiei buruz ere.

### 2.1. Komunikabideetako elkarrizketen makroegituraren ezaugarri nagusiak

Larrazabalek eta Larringanek (2007) diote hedabideetako elkarrizketa erako elkartrukeetan bi partaide egon ohi direla, eta partaide hauen artean disimetria dagoela: elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua, rolak ongi bereizirik daude. Elkarrizketa generoa, jardun antolatua da, eta autoreek elkarrizketen makroegiturari buruz zera azaltzen dute: hiru ataletan banatutako makroegiturak irekitze fasea, garapen fasea eta itxiera duela. Irekitze fasea elkartruke erritualek osatzen dute eta erritual hauek positiboak izan ohi dira: programari hasiera ematen zaio, elkarrizketatua aurkezten da. Lehenengo zati hau publikoari zuzenduta egon ohi da, bitartekaritza egiten delako publikoaren eta elkarrizketatuaren artean. Aurkezleak testuinguru bat aurkezten du, eta ondoren pertsonaiaren hainbat datu ematen ditu. Hauek dira irekitze faseko sekuentziak (Larrazabal & Larringan, 2007: 76):

- Atarikoak

- Agurra: topaketaren hasieran gertatzen da modu nahiko formalean egin ohi dira.
- Aurkezpena: elkarrizketatuari buruzko informazio xeheagoa ematen da, elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen harremana hasten da.
- Identifikazioa eta identitatea.

Jarraian, garapen fasea dator. Atal hau zatirik hedatuena eta mamitsuena da. Nahiko giro erlaxatuan izan ohi da, tirabira handirik gabe, Larrazabalek eta Larringanek (2007) deskribatutako irratik-elkarrizketa generoan bederen. Sekuentzia mota ugari badaude ere sekuentzia narratiboa nabarmentzen da garapen fasean. Zati honetan gai nagusiak jorratzen dira: deskribapenak, narrazioak, azalpenak, gogoetak...

Amaitzeko, ixte aldia aurkitzen da: tarte honetan elkarrizketalditik agurtzera tarteko bidea egiten da. Hauek dira ixte fasearen sekuentziak (Larrazabal & Larringan, 2007: 77):

- Elkarrizketagileak elkarrizketatuari denbora amaitzen ari dela adierazten dio. Elkarrizketatzailea laburbiltzen eta eskerrak ematen hasten da.
- Programak eskatzen duelako amaitzen da elkarrizketa, hau da, elementu estralinguistikoen ondorioz amaitzen da.
- Amaierako formulak baliatzen dira ixteko. Eskerrak ematen dira.

Halere esan behar da ixtea ez dela bat-batean egiten, “aurre-ohartze” batzuk daudela adierazten dute bi autoreok.

## **2.2. Solasa**

Hizkuntza ahoz eta idatziz gauzatzen da, eta alde handiak egon daitezke bi modalitateen arabeko testu gauzapenek izan ditzaketen ezaugarrietan. Honez gain, esan beharra dago hizkuntza testuinguru jakin batean gauzatzen dela, testuinguru bera osatzen du eta garrantzitsua da aintzat hartzea eta ikertzea erabiltzen den testuinguruaren arabera: egunkari batean, ospitalean, eskola batean... (Calsamiglia & Tusón, 2001).

Ahozko jardunari dagokionez, esan beharra dago ahozko mintzamoldearen barnean ere molde bat baino gehiago dagoela, bakoitza bere ezaugarri eta berezitasunekin, eta hau, komunikazio-egoera zehatzek baldintzatzen dute. Diskurtsoaz ari garenean, praktika sozial bati erreferentzia egiten ari gara, zeina pertsonen artean gertatzen den. Diskurtsoa gizartearen parte da, eta era berean, bizitza soziala sortzeko eta harremanetan jartzeko gizakiok darabilgun tresna da (Calsamiglia & Tusón, 2001). Ondorioz, soziologia desberdineko ahozko testuak aurki

daitezke, eguneroko bizitzan komunikazio-egoera desberdinei aurre egin behar zaielako, eta harreman sozial desberdinei erantzuteko mintzajardunak eraikitzen direlako (Alegria, 2009). Idatzizkoaren eta ahozkoaren dikotomia aipatu denez, ahozkoari, hizkuntza espontaneoari, egotzi izan zaion ezaugarrietako bat informaltasuna da, izaera landugabea eta inprobisatua, dialektoei lotua, galkorra, idatzia baina akastunagoa (Garcia-Azkoaga, 2015). Ahozko mintzamolde orok, berriz, denik eta informalenak ere, arau batzuk jarraitzen ditu eta gainera, ahozkoa izateak ez du esan nahi informala denik. Gutierrezek (2020) dioskunez ahozkotasunak ez dakar berez informaltasuna: “distantzia komunikatibo handia eragiten dioten baldintza komunikatiboak izan ditzake, berbazko egintza hori formal bihurtuz” (Gutierrez, 2020: 183). Alegriak (2009) ere hau berresten du:

“Bi ahozko mota bereiztea proposatzen digute. Batetik, “ahozko espontaneo” edo solas gisako elkartruke komunikatiboetan aurkitzen dugun hizkera inprobisatua. Bestetik, “idatzi mintzatua” edo ahoz gauzaturiko idatzizko hizkuntza, hau da, aurretik idatzia edo planifikatua izan den testu batean oinarritutako ahozko ekoizpena” (Dolz & Schnewly, 1998 *apud* Alegria, 2009: 778).

Hau ikusirik, bereizi egin beharko lirateke ahozko espontaneo edo lagunarte nahiz familia giroko solas gisako elkartruke komunikatiboetan aurkitzen den hizkera inprobisatua eta distantzia komunikatibo handiagoan garatzen diren elkartruke komunikatiboetako mintzamoldeetan, aurretik prestatuak diren elkarrekintzetan sortzen diren ahozko testuen ekoizpena.

Aipatu bezala, zehazki hedabideetako ahozko elkarrizketa generoari erreparatuko zaio lan honetan. Hasteko, genero gisa definitu beharko genuke, hona hemen Santamaríak emandako definizioa (2011): “la entrevista es un diálogo con características propias, donde dos o más personas establecen un proceso de comunicación en el que el objetivo principal es la obtención de información que se empleará en distintos niveles o ambientes” (Santamaría, 2011: 25)

Solas erara gauzatzen da hedabideetako elkarrizketaren generoa, testu dialogal gisa eraikita. Tusónek (2002) honela definitzen du solasa “una actividad verbal oral de carácter interactivo organizada (o estructurada) en turnos de palabra” (Tusón, 2002: 134), gizakiok dugun jarduerarik ohikoenetakoa dela dio. Bestalde, solasa definitzeko garaian hitz-txanden garrantzia aipatzen du, hauek direlako solasaren egituraren elementu funtsezkoak. Honi lotuta, Calsamigliak eta Tusónek (2001) diote hitz-txanden azterketa egitea beharrezkoa dela solasaren egitura ulertzeko. Solasa dialogala den heinean, bi pertsonen edo gehiagoren hartuko dute parte



solasa izan dadin. Larrazabalek eta Larringanek (2007) dioten bezala, “elkarkidetzan eraiki eta ekoiztutako emaitza da solasa” (Larrazabal & Larringan, 2007: 74).

Solasaren azterketan jardun duten hainbat adituk solasaren egitura azaltzeko proposamenak egin dituzte, eta ezagunena Sacks, Schegloff eta Jeffersonek (1974) eginikoa da. Bertan, hitz-txanden sistema nolakoa den adierazten da. 14 ezaugarri proposatzen dituzte solas espontaneoaren ezaugarritzeko:

1. Solasa dialogala da, hau da, hizlariak txandakatu egiten dira, aldaketa bat egoten da.
2. Orokorrean ez du pertsona batek baino gehiagok aldi berean hitz egiten.
3. Gainjartzeak gertatzen dira, baina laburrak izan ohi dira.
4. Hitz-txanden arteko trantsiziorik ohikoenak gainjartze edo interbalorik gabekoak dira.
5. Hitz-txanden ordena ez da zehatza izaten beti.
6. Hitz-txanden iraupena ez da zehatza, baina orekatua izan ohi da.
7. Solasaren iraupena ezin da aldez aurretik zehaztu.
8. Hizlariak esandakoa ez da aldez aurretik zehazten.
9. Hitz-txanden banaketa ez da aldez aurretik zehazten.
10. Hizlarien kopurua aldakorra izan daiteke.
11. Diskurtsoa jarraia, nahiz ez-jarraia izan daiteke.
12. Hitz-txanden banaketarako teknikak daude.
13. Hitz-txandak egituratzeko unitate formal desberdinak erabiltzen dira.
14. Hitzartzeetako errore zein transgresioak zuzentzeko teknikak daude.

Aintzat hartu behar dira hamalau ezaugarri hauek, izan ere, solas informalaren edo solas espontaneoaren ezaugarriak dira hauek, testuinguru anitzetan gauzatzen direnak: eguneroko solas batean, erosketak egitean... Bi pertsona edo gehiagoren elkartruke komunikatiboetako edozein egoeratan aurki daitezke solas espontaneoaren ezaugarriok.

Solasean etengabe aurki daitezke hitz-txandaketak, eta hitz-txandaketetarako hiru trantsizio modu nagusi daude (Larrazabal & Larringan, 2007): etenaldia, gainjartzea eta mozketak. Etenaldiari dagokionez, hizlari batek esan beharrekoa amaitzen duenean, eta hurrengo hasten denean gertatzen da, intonazio marken bidez ohartarazi ohi dira. Bigarren hizlariak aurreko hizlariaren hitz-txanda errespetatu izanaren adierazletzat hartzen dira. Gainjartzeari dagokionez, hitz-txanda aldi berean beste hitz-txanda bat abiatuta dagoela gertatzen da. Mozketari dagokionez, aurreko hitz-txanda amaitu aurretik gertatzen dira, moztu

egiten amaitu gabeko hitz-txanda. Gabirondok (2020) mozketek aldibereko hizketa dakartenez gainjartzeen barruan sartzen ditu.

Bestalde, Tusónek (2002) dio hitz-txandaketak forma koordinatuan gertatzen direla, eta bi mekanismo aipatzen dizkigu txandaketa hauek gerta daitezen: “heteroselekzioa” eta “autoselekzioa”. Heteroselekzioan hitz-txanda duen pertsonak erabakitzen du hurrengo hizlaria, eta autoselekzioan, berriz, solasean parte hartzen duen pertsona batek hitz-txanda hartzen du borondatez, bere burua aukeratzen du hizketarako. Gabirondok (2020) dioenaren arabera, elkarrizketatuak galdera bat egiten duenean heteroselekziozko iturburua du hurrengo hitzartzeak, hau da kazetariak elkarrizketatua hautatzen du zuzenean erantzuna eman dezan. Aldiz, elkarrizketatuak erantzuna ematen duenean interlokutoreek euren burua autoselekzionatu egin behar dute hitzartze berri baterako. Honek gainjartze eta mozketak asko sortzen ditu. Honez gain, Gabirondok (2020) hurren-bikoteei buruzko azaleko azterketa bat egiten du, galde-erantzun motakoak nabarmentzen direla azalduz, baina oraino ez da asko ikertu, beraz, hurren-bikoteei helduko zaie lan honetan.

### **2.2.1. Testuinguruaren garrantziaz**

Aurretik aipatu bezala, testuinguruari erreparatzea oso garrantzitsua da, hizkuntzak testuinguru jakin eta desberdinetan gauzatzen direlako, testuinguru honek solasaren egituraketan eta elkartruke komunikatiboan eragina duelako. Beraz, komunikazio egintza aztertzeko garaian solasean parte hartzen dutenei eta mezuari erreparatzeaz gain beste alderdi estralinguistiko batzuk aztertu behar dira (Gutierrez, 2020). Gutierrezek (2020) Koch eta Oesterreicherren (2007) lanari jarraiki, komunikazio egoera jakinetan agintzen duten baldintza komunikatiboen parametroen aldagaitasunak solasaren antolamenduan, bereziki hitzartzeen antolamenduan duten eragina aztertu ondoren, ondorioztatu du komunikazio baldintzek, hau da, testuinguruak eragin zuzena eta nabaria duela solasaren antolamenduan.

### **2.3. Hurren-bikoteak**

Hitz-txandetan atzeman daitekeen egiturarik oinarrikoena hurren-bikotea da, alternantzia printzipioan eraikitzen diren unitate dialogal minimoak dira, eta honela definitzen ditu Tusónek (2002): “consiste en dos turnos consecutivos que presentan la particularidad de que, dado el primero, se espera que se produzca el segundo. Casos típicos de pares adyacentes serían “pregunta-respuesta”, “saludo-saludo”, “ofrecimiento-aceptación / rechazo” (Tusón, 2002; 138). Ducrot eta Schaefferren (1998) arabera, diskurtsoaren analisiak hurren-bikoteen

garrantzia erakutsi du. Autore hauek, honela definitzen dituzte hurren-bikoteak: “Un par adyacente es una secuencia de dos enunciados adyacentes producidos por locutores diferentes” (Ducrot & Schaeffer, 1998; 147). Honez gain, hizlarien hitz-txandak ez dira aleatorioki gertatzen, aurrez araututako estrategiez baliatzen dira hizlariak. Hau da, hizlari batek zerbait esaten duenean, norbaiti zuzendurik esaten du, eta nolabait ere besteak esan beharreko erantzuna mugatuta dago, erantzun zehatz bat espero delako. Beraz, hurren-bikoteek beren antolamendu propioa izango badute ere, hitz-txanden antolamenduaren menpe egoten dira (Ducrot & Schaefferren, 1998).

Solasean egituraketa bat dago, eta bertan lokutore bat egongo da, “A” deitu daitekeena. Honen ondoren, ordea, “B” lokutore bat espero da, erantzun bat emango diona A lokutoreari, alternantzia printzipioa jarraituz (Tusón, 2002). Solas motaren arabera solasak egituraketa desberdin bat izango du testu gisa eraikitzen duen hitz-txanden antolaketa egiteko garaian: hau da, ez da berdina denak elkarrizketa generokoak izanda ere mahai inguru batean, eztabaida gidatu batean edo elkarrizketa arrunt batean sortzen den solas egitura. Are gutxiago, informalagoak diren testuinguruetan sortzen diren solasaren ezaugarriekin konparatzen badira (ikus gorago Sacks, Schegloff eta Jeffersonek (1974) ezarritako 14 erregelak). Egoera hauek, halabeharrez, eragina dute hurren-bikoteen osieran.

Tusónek (2002) hurren-bikote ohikoen lehenengo eta bigarren zatia zein izan ohi den edo izan daitekeen adierazten du taula honetan:

1. Taula: Levinsonen sailkapenari jarraitzen dion hurren-bikote motak (Levinson, 1983: 324 *apud* Tusón, 2002:139)

1. zatia (A)	2. zatia (B)	
	(Erantzun positiboa)	(Erantzun negatiboa)
Eskaera	Onarpena	Ukatzea
Eskaintza/gonbidapena	Onarpena	Ukatzea
Balioztapena	Adostasuna	Desadostasuna
Galdera	Esperotako erantzuna	Espero gabeko erantzuna/erantzunik ez
Akusazioa	Ezeztapena	Onarpena

Charaudeauek eta Maingueneauk (2005) hurren-bikoteen funtzionamenduari dagokionean honakoa argitzen dute: elkartrukean ari diren lokutoreen interakzio mailan, hizlari batek bere esana amaitzen duenean hitz-txanda hori amaitu egiten da. Jarraian beste hizlari batek aurretik esandakoari erantzun egiten dio, eta hori, ulertu duenaren erakusgarri da. Zerbait esandakoan, beraz, erantzun bat espero da: “vínculo de dependencia condicional” (Charaudeau & Maingueneau, 2005; 425) deitzen diote honi:

(A) Zenbat urte dituzu?

(B) 26 urte ditut.

Halere, hainbatetan hurren-bikoteetan (“A”-ren eta “B”-ren artean) hainbat *txertatze* gerta daitezke, beste hurren-bikote batzuk irekiz. “A” eta “B”-ren artean (galde/erantzuna edo dena delakoa) beste hurren-bikote batzuk ager daitezke, lehenengo hitz-txandan lokutoreak galdera bat egiten du, baina erantzuna ez da berehalakoa, bitartean beste hurren-bikote batzuk irekitzen direlako, eta lokutoreak lehenengo hitz-txandan sortu duen hurren-bikotea hitz-txanda batzuk beranduago ixten da, hona hemen adibide bat: (Sacks, 1972: 45, *apud* Tusón, 2002: 139)

(1) A —Eh, ¿convenciste tú a Marcia para que viniera aquí?

(2) B — ¿Ha estado aquí?

(3) A —Sí.

(4) B —¿Cuándo se ha ido?

(5) A —Hace una media hora.

(6) B —Sí, la convencí de que viniera conmigo.

Hemen, ikus daiteke (1) hitz-txandan hurren-bikote bat ireki dela, norbaitek galdera bat egin duelako, baina ez da itxi (6) hitz-txandara arte, bertan erantzun delako (1) hitz-txandan galdetutakoa. Tartean beste bi hurren-bikote sortu dira: (2)-(3) eta (4)-(5). Hauez gain, hurren-bikoteetan solaskidetzaz agerraldiak ere txerta daitezke, beheko atalean erreparatuko diegu hauei.

Beste batzuetan, hurren-bikoteen osaera konplexuagoa bihurtzen da, eta hitz-txanda batean hurren-bikote bat baina gehiago irekitzen dira, edo bat ixten da eta beste bat irekitzen da:

717. A. vaya\| por dios\| ja ja ja ja ja \|\| bueno carlos qué hora es\|

718. porque los del somie:r- |tas hecho =daño=/\|\|

719. C. =lo del= somier- no estamos—| no es que estaba:\|

720. estaba- limpiando la cabeza de:—\| las setas\|\| [incomp.]\|

721. A. qué/|

722. C. que los del somier están dentro de una hora aquí<0>

723. A. a- sí/ qué hora es /| es que me parecía:—|

724. C. cinco y media\| 725. A. a vale\||

(Corpus del CAD, Círculo de Análisis del Discurso *apud*  
Tusón, 2002: 139)

Adibide honetan, lehenengo hitz-txandan (717) “A”-k hurren-bikote bat ixten du, eta beste bat irekitzen galdera batekin. 718-an (hitz-txanda berean), beste hurren-bikote bat irekitzen du, mina hartu duen galdeginez. Hurrengo hitzartzea “C”-rena da, eta 718an egindako galderari erantzuten dio ezezko batekin eta azalpen bat ematen dio, baina lehenengo galderaren erantzunik ez du jasotzen. 721. hitz-txandan “A”-k beste galdera bat egiten du, eta honen erantzuna jaso gabe geratzen da. 722. hitz-txandan “C”-k lehenengo hitz-txandakoari zeharka erantzuten dio, ze ordu den ulertzea emanez, baina dirudenez “A”-k ez du ulertzen ze ordu den eta 723. hitz-txandan berriro galdetzen du ea ze ordu den, eta azkeneko hitz-txandan, 724. hitz-txandan “C”-k, “A”-k lehenengo hitz-txandan irekitako hurren-bikotea ixten du ze ordu den erantzunez. Hemen, hurren-bikoteak txertatzeaz gain hitz-txanda berean hurren-bikote bat itxi eta ireki egin daitekeela ikus daiteke. Beraz, hau ikusirik, esan daiteke benetan konplexua izan daitekeela hurren-bikoteen osaera eta egituraketa.

Hau dena ikusirik, Brizek eta bestek (2003) diotenez, interbentzioak honako hauek izan daitezke: inizatiboak, errektiboak eta errektibo-inizatiboak. Inizatiboak erantzun edo errektio bat sortzeko esaten dira, eta hauek galderak, proposamenak, gonbidapenak... izan daitezke. Galdera zuzenak edo zeharkakoak ere izan daitezke. Errektiboak, interbentzio inizatibo baten ostean datozenak dira, aurrekoari erantzun bat emanez. Errektibo-inizatiboak berriz, hitz-txanda berean erantzun bat ematen da baina aldi berean inizatibo bat sortzen da. Azken hau litzateke 717. hitz-txandan ikusitakoa: hitz-txanda bakarrean hurren-bikote bat ixten du eta beste bat irekitzen du.

Aipatu bezala, egiturarik ohikoenen artean sartzen da “galde-erantzuna”, “agurra-agurra”, “eskaintza-onarpena/ezeztapena” etab. Baina batzuetan, oso ohikoa da “galdera-erantzuna-ebaluazioa” erako egiturak eratzea, hau eskolan oso ohikoa den forma bat da (Tusón, 2002).

Aurrekoari jarraiki, Alegriak (2009) dioenaren arabera, mintzajardun dialogiko hauetan, interlokutore edo mintzakideei etengabeko inplikazioa eta bertan parte hartzen ari direla adieraztea eskatzen zaie. Kerbrat-Orecchionik (1996 *apud* Alegria et al., 2008: 85) adierazten du mintzajardun dialogaletan, hartzaileak igorlearen ahulaldia sumatzen duenean, hainbat erregulaztaile erabiltzen direla, espontaneoki elkartrukearen jarraipena ziurtatzeko balio dutenak (“bai”, “ez dakit ba”, “ondo”, “mh”, “a ha”, “primeran!”... bezalakoak), eta bestera, igorlea denean hartzailearengan ahulaldi hori antzematen duena elementu fatikoak erabiltzen dituela (“eh?”, “ezta?”, “ulertzen?”, “ez al zaizu iruditzen?”... bezalakoak). Osagai hauek hurren-bikoteen osaeran ere parte hartu dezakete solaskidetza agerraldi bezala, entzuketa aktiboko elementu gisara (Larrazabal & Larringan, 2007). Ondorengo azpi-atalean zehatzago jorratuko ditugu.

#### **2.4. Solaskidetza agerraldiak hurren-bikoteen osaeran**

Ahozkoaren praktikak alokuzioa inplikitzen du, lokutoreaz gain hartzaile fisiko bat beharrezkoa da, bakarriketa bat ez bada, behintzat. Izan ere, “komunikatzea informazioa trukatzu besteengan eragitea da” (Alegria et al. 2008; 85). Ahozkoan jarduteak interlokuzioa eskatzen du, hitz elkartruke bat. Elkartruke ohikoena solasa da, azaldu den bezala. Ahoz jarduteak interakzio bat eskatzen du eta etengabe lokutoreek solasa eraikitzerakoan elkarri begira daudela erakusten diote diskurtsiboki, hainbat erataria. Horietako bat da solaskidetza edo interlokuzioa, eta solasaren antolamenduan badu eragina, mintzamoldearen arabera gehiago, gutxiago eta era ezberdinetara agertu ohi da eta.

Ahozko komunikazioaz ari garenean, hiru komunikazio alderdi bereiz daitezke Kerbrat-Orecchioniren (1996 *apud* Alegria et al., 2008) arabera: alokuzioa, solaskidetza (interlokuzioa) eta elkarreragina (interakzioa). Jarraian aztertuko ditugu.

Elkarreraginaren nozioari dagokionez, honela definitzen du Kerbrat-Orecchionik (1996 *apud* Alegria et al., 2008: 85): “Elkartruke komunikatiboan zehar parte hartzaile desberdinek eraikitzen duten elkarreraginezko sarearekin zerikusia duen alderdia”. Beraz, elkarreraginak parte hartzaileek elkarrekiko solaskidetasuna, elkarlanerako modua eta harreman pasiboan balioespina agertzeko baliatzen dituzten aztarna eta balioak hartzen ditu beregain. Beste alde batetik, Kerbrat-Orecchionik (1996 *apud* Alegria et al., 2008: 85): interlokuzioari dagokionez hau dio: “Hitzezko -zein hizkuntzaz kanpoko zeinuen- elkartrukeari erreferentzia egiten dion alderdia”. Komunikazioa gauzatu dadin, komunikazio-jardueran parte hartzen dutenen

presentzia fisikoa beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa, parte hartzaileek fisikoki bertan egoteaz gain psikologikoki ere elkartruke komunikatiboa gauzatu dadin prest agertu behar direlako. Interlokuzioa aurrera doala jakiteko zantzuak hartzaileen espresioek adierazten dute. Alegriak (2009) solaskidetza agerralditzat hartzen ditu “eh”, “ezta?” “bai?” partikulak. Bestalde, solaskidetza agerraldietan honako hauek ere garrantzitsuak dira: berrartzeak eta errepikapenak, eta entzute aktiboaren markatzaileak. Gutierrezek (2019) ikus-entzunezko bi kazetaritza saiotan oinarriturik (*Azpimarra* + eta *Herri People*) errepikapenak aztertu ditu, eta ondorioztatu du errepikapen motei dagokienez (auto-errepikapena eta hetero-errepikapena) desberdintasunak ageri direla bi saioetan. Bere ustez, emaitza hauek saioaren helburu komunikatiboaren mendekoak dira, saioaren izaeraren eta funtzioaren mendekoak. Amaitzeko, Kerbrat-Orecchioniren (1996 *apud* Alegria et al., 2008: 85) arabera alokuzioa igorlearengandik fisikoki bereizten den hartzaile edo entzulearen presentzia eskatzen duen alderdia da.

### **3. ATAL PRAKTIKOA**

#### **3.1. Lan metodologia**

Hurrengo orrialdeetan atal praktikoari helduko zaio. Bertan, azterketaren nondik norakoak azalduko dira, helburuak eta hipotesiak zeintzuk diren zehaztuz. Corpusaren ezaugarriak ere azalduko dira, saio bakoitzaren nondik norakoak adieraziz. Amaitzeko, corpuseko hurren-bikoteak aztertuko dira, eta bietan aurkituriko desberdintasunak azaldu.

#### **3.2. Azterketaren helburua**

Azterketa honen helburua solasaren egituran edo antolamenduan hurren-bikoteen sistema ezaugarritzea izango da, hurren-bikote motak, izaera eta hauen ezaugarriak deskribatzea, hurren-bikoteek nolako osaera duten deskribatzea. Biak elkarrizketa generokoak dira, baina saio ezberdinak dira, helburu, gai eta hartzaile desberdina dutenak eta solasaren egituraketan, hitz-txanden banaketa ezberdina eragiten die horrek. Lan honetan, azterketa ildo horri helduta, ikusi gura da zehatzago baldintza komunikatibo ezberdinek nolako eragina duten bi saioen hurren-bikoteen antolamenduan.

#### **3.3. Hipotesia**

Lan honetako hipotesia da *DidaGaztea* irratsaioko elkarrizketak eta *Azpimarra* + saioko elkarrizketak genero ezberdinak izanik solasaren antolamenduaren barruan hurren-bikoteen osatze eta kateatze modu bereizgarria eta desberdina erakutsiko dutela. Alegria, saio bakoitzaren komunikazio baldintzen parametroek solasaren egituratze desberdina eragingo dute

elkarrizketaren egituraketa maila makroan ez ezik (elkarrizketa bera) unitate dialogal minimoa diren hurren-bikoteen osatze maila mikroan ere.

### **3.4. Corpusa**

Lan honetako erabili den corpusa EITB-ko (Euskal Irrati eta Telebista) Nahieran plataforman eskaintzen diren bi saioretatik eskuratuta dago. Alde batetik irrati saio bat: Gaztea irrati-kateko *Dida* saioko elkarrizketen atala, eta bestalde, telebistako Azpimarra saioko *Azpimarra* + azpiataleko elkarrizketak. Transkribaketa hauek Gabirondok (2020) eta Gutierrezek (2020) osatutako corpusa osatzen dute, haien baimenarekin hartuak dira. Corpusaren atal hauek aukeratu dira azterketa honetarako: *DidaGaztea* saioari dagokionez, GD1 (Sergio Patxukori eginiko elkarrizketa) eta GD4 (Maialen Atxagari eginiko elkarrizketa) hautatu dira. Azpimarra saioan berriz, AZPI1 (Paul Bilbaoren elkarrizketa) eta AZPI2 (Arnaldo Otegiari egindako elkarrizketa). Corpusa eranskin gisa jasota dago lan honetan.

#### **3.4.1. *DidaGaztea***

*DidaGaztea* saioa Gaztea irratiaren barnean emititzen den programa bat da, goizean lehen ematen dena. Irratsaio hau, goizeko 7etan hasten da eta 12etan amaitzen da. Irratsaioko edukiei erreparatzen badiegu, umorez beteriko saioa da, eta aktualitateko gaiak jorratzen dituzte; berriak eman, eguraldia eman eta elkarrizketak nahiz solasaldiak izaten dituzte. Saio honetan, hainbat partaidek egon ohi dira: Julen Telleria, Antton Telleria, Jon Gotzon Aldaparena, Edurne Garmendia eta Xabin Fernandez. Hemen bakoitzak bere rola du, eta ondorioz, funtzio desberdinak beteko dituzte solasaldian. Julen Telleria da programaren aurkezle nagusia, berak maneiatzen du nagusiki irratsaioa. Jon Gotzon Aldaparenak betetzen duen rola ere aipagarria da, bere parodia, bereziki. Pertsonaia hau euskaldun berria da, Burgosetik etorria. Bere ezaugarri estilistiko nabarmenena hizkuntza hibridazioa da, euskara eta gaztelera nahasten baititu etengabe, estilizazio hiperboliko eta parodiatua da (Elordui, 2019). Jon Gotzonek transgresioa erabiltzen du. Euskara-gaztelera hibridotasuna, hainbaten ustez, albo-kalte saihestezinak sortzen ditu erakunde normalizatzaileentzat (Elordui, 2019). Gazteentzat sorturikoa den heinean kutsu “informalagoa” ematen saiatzen dira, elkartruke komunikatibo anitzak eta desberdinak sortuz, solasari beste egitura bat emanez.

#### **3.4.2. *Azpimarra* +**

Azpimarra saioa Maddalen Iriarte kazetariak ETB1en aurkezten duen programa da. Bertan, eguneko albisteak emateaz gain, hainbat gonbidatu izaten dituzte: kazetariak, politikariak etab. Eguneko albisteen eta aktualitateko gaien inguruan jarduten dute, analisiak



egin, eztabaidatu... Tartean, astean behin egiten den *Azpimarra* + izeneko zati bat dago, eta bertan elkarrizketak burutzen dira. Corpus honetan bildutako elkarrizketak atal honetakoak dira. Saioaren egiturari dagokionez, Maddalen Iriartek eguneko saioan mintzatuko diren gaien aurrerapena egiten du, baita eguneko albisteak azaldu ere. Ondoren, elkarrizketa bat egiten da gaiarekin zerikusia duen norbaitekin.

### 3.4.3. Saioen arteko desberdintasunak

Aipaturik dago dagoeneko, biak elkarrizketak direla, baina ez dituzte ezaugarri eta helburu berdinak partekatzen: bi saioen helburua eta funtzioa desberdina da. *DidaGaztea* saioa irratiz emititzen den saio bat da, eta izaera ludikoa du, hau da, bertan egiten diren elkarrizketak entzuleak denbora pasatzeko dira. Bertan jorratzen diren gaiak ez dira politikoak eta oso polemikoak izaten, normalean musika taldeei egiten zaizkie elkarrizketak, Euskal Herrian egingo diren ekintzei, festibalei edo beste hainbat ekitaldiri buruzko elkarrizketak izan ohi dira. Solasaren egiturari dagokionez ere, nahiko dialogalak izan ohi dira saioak. *Azpimarra* + saioa berriz informatiboagoa da, helburua gai sakon baten inguruan jardutea da, gizartean ditugun gatazkak gertuagotik ezagutzea, argumentatiboa da, beraz. Gabirondok (2020) bi saio hauetako hitz-txanden alternantzia aztertutik, ikusi du *Azpimarra* + saioaren elkarrizketatuaren hitzartzeak askoz luzeagoak izatearen arrazoia saioaren izaera informatiboa dela, eta alderantziz, *DidaGaztea* saioaren elkarrizketagileen hitzartze kopurua gonbidatuaren ia bikoitza izan ohi da, hainbeste kazetari izatearen ondorioz.

### 3.5. Metodologia

Hurren-bikoteak aztertzeko hiru hurren-bikote motako sailkapen bat egin da aukeratutako corpusa aztertu ahal izateko. Hiru multzo hauetan sailkatuko dira azterketa bideratzeko:

- a) Hurren-bikote soilak: A-B erakoak. Kasu hauetan, bi interbentzioz osatuta dauden hurren-bikoteak identifikatuko dira: galdera bat izan daiteke, esaldi inizatibo bat, proposamen bat... eta ondoren honi dagokion erantzuna. Bertan amaituko litzateke hurren-bikote honen osaera. Jarraian, beste hurren-bikote bat hasiko litzateke, hau da, beste A batekin, hurrengo hurren-bikotearen unitatea, unitate dialogal minimoa.

Corpuseko adibide bat:

37 (A) JT: iepa ongi etorri Didara] zer moduz Maialen?

38 (B) MA: ondo

- b) Ebaluaziodun hurren-bikoteak: A-B-C. Hurren-bikote hauetan, hurren-bikote soilak aurkituko dira baina osatuak: oinarrizko bi interbentzioez gain beste elementu bat gehituko zaie: ebaluazioa. Nolabait ere B-ri, hau da, erantzunari ebaluazio bat egiten zaio.

Corpuseko adibide bat:

167 (A) JGA: = e gertatzen da hori tinte naturalekin edo hori ya soluzionatua dago?

168 (B) MA: ez / tinte naturalakin ya holako gauzak / nik uste [eztiala pasatzen

169 (C) JGA: ez dira pasatzen]

- c) Hurren-bikote konplexuak. Hurren-bikote hauetan, era askotako hurren-bikoteak aurkituko dira, edonola ere, txertaketa bidez konplexuago bihurtzen diren unitate dialogalak dira hemen identifikatuko direnak.

Corpuseko adibide bat, hurren-bikote konplexu bat:

47 (A) EG: & esan duzu / normalean / hor e kimikadun zerbait e: baduzu ez?

48 (B) MA: bai e: bueno ba / sartu ditut e: ahalik eta tinte: naturalenak // [e:

49 (B') EG: bai]

50 (B) MA: = oain dala bi urte ireki nun pelukeria

51 (B') JT: & bai

52 (B) MA: eta / komentatu nunian e / dana ba alternatibokua: jarri nahi nula

Behin sailkapen hau proposatuta, azterketako emaitzak aurkeztuko dira.

### **3.6. Emaitzak**

Emaitzei erreparatzeko garaian, lehenengo *DidaGaztea* saioko emaitzei erreparatuko zaie, eta ondoren *Azpimarra* + saiokoei. Bi saioretan, lehenengo hedabideetako elkarrizketen makroegiturari erreparatuko zaio generoaren arabera goitik beherako ikuspegiari helduta, eta ondoren hurren-bikoteen deskribapena egingo da.

#### **3.6.1. *DidaGaztea* saioko emaitzak**

Hasteko, esan beharra dago partaide asko direnez, hizlari kopuru handiagoa egoteak solasa bera espontaneoagoa bihurtuko duela, elkarrizketatzaileek hitz egiten dutenean autoselektzioa gertatzen da, galdera elkarrizketatuari zuzenduta dagoelako, eta alderantziz, elkarrizketatuak hitz egiten duenean 5 elkarrizketatzaile daude hitz-txanda hartzeko. Halere,

honi dagokionez *DidaGaztea* saioan ere, beste programa edo irratsaio guztietan ohikoa denez, rolak ongi banatuta daude, eta garbi ikus daiteke Julen Telleriak duela gidari rola, eta bera dela gehienetan hitza hartzen duena. Elorduik (2016) *DidaGaztea* saioko pertsona bakoitzaren rola zein den aztertu zuen. Garai hartan, Joseina Etxeberria zen gidaria, eta orain Julen Telleria da. Biek rol bera betetzen dute: gidari eta moderatzaile lanak eginez. Gabirondok (2020) berba kapitala kalkulatu zuen, eta garbi ikusten da Julen Telleriaren ahotsa gailentzen hitzartze kopuruaren bitartez. Lan honetara ekarrita, hurren-bikoteetan A gehienak berak sortzen ditu, gidari eta moderatzailea den heinean eta horren erakusgarri ere bai. Beste kazetarien jarduna ebaluaziora eta solaskidetza agerraldietara mugatzen da hitzartze askotan.

Rolen banaketa honek, egitura formala duela ere erakusten du, hau da, honekin ez da esan nahi lagun arteko solasa denik, baina era berean, hainbeste partaide daudenez, solasa dialogalagoa izatea eragiten du, gehiago gerturatzen da beraz aurretik Sacks, Schegloff eta Jeffersonek (1974) deskribatutako ezaugarrietara, eta ondorioz, solas espontaneoaren ezaugarrietara. Genero formal bat da, baina gazteei zuzendutako saioa den heinean, elementu batzuk, adibidez solaskidetza, edo hitz-txanden kudeaketa “naturalago”, “informalago” edo “espontaneogo” bihurtzen saiatzen dira, berez formala den testuinguru batean.

Emaitzak aurreratze aldera, saio honetan hurren-bikote konplexuak gailenduko dira, soilak eta ebaluaziodunak, berriz, gutxi izango dira.

### **3.6.1.1. Elkarrizketaren makroegitura**

Formala dela adierazten duten ezaugarri nagusietako bat elkarrizketaren makroegitura izan ere, Larrazabal eta Larringanen (2007) lanari jarraiki, egitura zehatz bat jarraitzen du elkarrizketak: sarrera bat dago eta bertan testuingurua aurkezten da eta elkarrizketatzaileari buruzko datu batzuk ematen ditu, berari ongietorria emanez, irekitze fasea litzateke hau. DG1 elkarrizketaren kasuan, zuzenean ematen zaio ongi etorria, eta ondoren egiten da diskoaren aurkezpena:

#### **1. adibidea (GD1)**

1 JT: Sergio Patxuko / egun on

2 SP: egun o:n / [zer moduz zaudete?

3 JGA: (())

4 JT: aupa (())] zer moduz / ondo?

5 SP: oso ongi / gogoekin ya:

[...]

9 SP: bueno e / talde bat da // e: baina bueno / Patxuko [naiz izenean // bai

Jarraian, elkarrizketaren garapen aldia dator, eta bertan diskoari buruz eta egin behar dituzten kontzertuei buruzko galderak kokatzen dira, helburua informazioa biltzea delarik, eta taldearen eta diskoaren xehetasunak aipatzen dituzte, zatirik mamitsuena da:

## 2. adibidea (GD1)

36 SP: bai mira / e:: / hasi genuen: / Patxuko Nicen: / proiektuarekin // ba: / ni orain dela: /

37 pues ez dakit atzo egon nintzen Quimekin / eta esan zidan hamalau edo: hamazazpi urte

38 [egin genuen zuzenean

39 JT: jo:der]

40 SP: = Katalunian // beste proiektu batekin e koadro bat / e / guk jotzen [genuen bitartean

Amaierari dagokionez ere, formaltasuna nabari da parte hartzailearen arabera agurraren esamolde metakomunikatibo informalak erabili arren, izan ere, azken lerroetan itxiera emateko saiakera ikusten da, eta eskerrak ematen eta agurtzen bukatzen dute elkarrizketa:

## 3. adibidea (GD1)

149 JT: = berriz ere jarriko dugu eskerrik asko zuri [besarkada bat

150 EG: ikusiko gara]

151 JT: = eta ondo joan dadila [dena Patxuko!

152 XF: aupa hi]

153 JGA: benga: / agur

154 SP: mila esker

### 3.6.1.2. Hurren-bikoteen osaera

Jarraian banan-banan azalduko dira *DidaGaztea* saioko hurren-bikoteek erakusten dituzten erregulartasunak haien osaeran eta kateatzean.

a) Hurren-bikote soilak.

*DidaGaztea* saioan hurren-bikote soilak oso gutxi dira, hona hemen topatutako adibide bakarrenetakoak:

#### **4. adibidea (GD1)**

4 (A) JT: aupa (( ))] zer moduz / ondo?

5 (B) SP: oso ongi / gogoekin ya:

Hemen ikus daiteke Julen Telleriak gonbidatuari zer moduz dagoen galdetzen diola, eta SP-k erantzun bat ematen dio. GD2 testuan ere, sarrerako agurrean bat agertzen da, GD1-en bezala, baina, honez gain, hurren-bikote soil bakarra aurkitu daiteke testu osoan:

#### **5. adibidea (GD4)**

43(A) JT: eta ze produktu klase] erabiltzen dituzu bertan Maialen?

44 (B) MA: bueno: ba / nik erabiltzen ditut normalian danak dia: naturalak e: tintetikan hasi/

45 eta txanpuak maskarilak / akondizionadoriak bueno ba pelukeri normal batian erabiltzen

46 dianak

b) Ebaluaziodun hurren-bikoteak.

Ebaluaziodun hurren-bikoteei dagokienez, soilak baino gehiago ageri dira, hona hemen aurkituriko adibide bat:

#### **6. adibidea (GD4)**

79 (A) AT: & beste / beste] erremedio bat da // naturala izan eta onartzea: / ile beltza duzula

80 (B) MA: hoi da / bai [askotan hoi pasatzen da

81 (C) JT: ya hori da ya] // [hori da beste mobida bat

[...]

83 (C) XF: & hori errexena da

Zati honetan, AT-k baieztapen bat egiten du, eta MA-k arrazoia emanez erantzun egiten dio, baina ondoren, JT ebaluatu egiten du, “ya hori da ya” espresioa erabiliz. Batzuetan ebaluazioak hitz-txanda bat baino gehiagokoak izan daitezke, kasu honetan XF-k ere ebaluatu egiten du. Beraz, ebaluazio bakarrekoak nahiz gehiagokoak aurki daitezke. Ebaluazio hauek, maiz solaskidetza agerraldien bidez gauzatzen dira. Solaskidetza agerraldi hauek, ahozko mintzajardunean oso ohikoak dira, eta interlokuzioaren jarraipena egokia dela ziurtatzeko balio dute. Gainera, honi gehitu behar zaio irrati bidezko elkarrizketetan entzuleak ez duela ikusten elkarrizketa, entzun bakarrik egiten duenez areagotu egiten dira solaskidetza agerraldiak,

partaideek asmo aktiboa erakutsi behar dutelako elkarrizketan. Telebista bidezko elkarrizketetan ziurrenik solaskidetza agerraldi gutxiago agertuko lirateke. Bestalde, ezaugarri honek ahozkoatasunarekin lotura handia du, eta alderdi honetatik ikusi daiteke ahozko hizkera espontaneora hurbiltzen dela elkarrizketa hau.

c) Hurren-bikote konplexuak, txertatuak.

Jarraian, hurren-bikote konplexuak azalduko dira, eta ze motatako hurren-bikoteak aurki daitezkeen, batez ere, zein den erregularitasun nagusia. Atal honetan, gainjartze asko aurkitu daitezke, eta *DidaGaztea* saioko elkarrizketetan, oro har, gainjartze asko egoteak hurren-bikoteen antolamendua konplexuagoa bihurtzen du, halere, badira asko errepikatzen den patroia bat. Gainjartze hauek solaskidetza agerraldien bidez gauzatzen dira normalean, autoselektzioaren ondorioz izan ohi dira (Gabirondo, 2020), eta baita kazetaria entzuten ari den adierazgarri bezala ere. Hona hemen askotan errepikatzen den patroietako bat:

### 7. adibidea (GD1)

35 (A) JT: zergatik Sergio?]

36 (B) SP: bai mira / e: / hasi genuen: / Patxuko Nicen: / proiektuarekin // ba: / ni orain dela:/

37 pues ez dakit atzo egon nintzen Quimekin / eta esan zidan hamalau edo: hamazazpi urte

38 [egin genuen zuzenean

39 (B') JT: jo:der]

40 SP: = Katalunian // beste proiektu batekin e koadro bat / e / guk jotzen [genuen bitartean

41 (B') XF: a bai

42 (B') JT: bai bai]

43 (B) SP: = bera atzetik /// [eta:

44 (B') XF: halako performance] bat

45 (B') JT: bai

46 SP: bai // [eta:

Adibide honetan, JT-k aipatzen dio disko berriaren izena *Quimen Marrazkia* dela, eta jarraian galdetzen dio zergatik izena duen diskoak horrela. SP bere erantzuna ematen hasten da, istorioa kontatuz. Tartean ordea, elkarrizketatzaileek etengabe moztu egiten dute elkarrizketatzailea, eta ikusten da mozten den kasu ia guztietan solaskidetza agerraldien bidez gauzatzen dela (mozketa hauek B' gisa izendaturik daude). Era honetako patroiak dira *DidaGaztea* saioretan nagusi, elkarrizketatua erantzuten hasten denean, eta hau ia beti gertatzen den ezaugarria da, eten egiten

diote “claro”, “bai”, “ala” bezalako espresioak erabiliz. Solaskidetza agerraldi hauek txertatutako elementuak izango lirateke.

*DidaGaztea* saioko hurren-bikoteekin amaitzeko, txertatutako beste hurren-bikote bat ikusiko da: SP-ri egindako elkarrizketan, elkarrizketatzaile bat gonbidatuaren ibilbidea azaltzen hasten da, eta hau da esaten duena:

### **8. adibidea (GD1)**

28 (A) EG: & bueno Joxe Ripiau Esne Beltzakekin ibili da / eta Patxuko Nicerekin laugarren  
29 diskoa baina es que ibiltzen zea ere // beste gauza askotan Sergio

30 (B) SP: bai / baina: / bueno / hori da / niri gustatzen zaidana: da musika: eta beti: //

31 kanalizazioi bat egiten dut hortik eta / horregatik e ateratzen dira gauzak baina

32 (C) EG: & claro

33 (A) JT: & disko berri honek izena du // Quimen marrazkia

34 SP: bai / [historia oso polita

Adibide honetan, 28. lerroan EG-k galdera bat egin ostean, SP-k hitza hartzen du 30. lerroan, baina 32. lerroan EG-k hitza kentzen dio “claro” esanez (ebaluatuz). Jarraian JT-k beste hurren-bikote bat irekitzen du, diskoaren izena zein den azalduz. SP-k horri erantzuten dio eta diskoaren izenari buruz ari dira hizketan. Jarraian, JT-k diskoaren izenaren zergatia galdetzen dio, beste hurren-bikote bat irekiz (7. adibidea). Diskoaren izenari buruz amaitutakoan, hau diosku SP-k 48. lerrotik aurrera:

### **9.adibidea (GD1)**

48 SP: & bai / marrazkilari bat e: bueno // oso: / ezaguna da: internazional eta hori baina

49 nik e: Joxe Ripiau (()) pues harremana berarekin // hartu: // elkarrekin hartu genun eta //

50 eta / geroztik / ba beti e mantendu dugu

Hemen, ikus daiteke EG-k 28. lerroan egindako galderari nolabait ere erantzun egiten diola, EG-k aipatutako musika talde bati erreferentzia egiten diolako (honez gain, hitz-txanda berean 7. adibideari ere erantzuten dio). 8. Adibidean ikus dezakegu txertatu dena beste hurren-bikote bat izan dela.

Esan bezala, hurren-bikote gehienek patroia bera jarraitzen dute, hau da, 7. adibidekoaren antzeko egituratzea erakusten dute. Elkarrizketatua hizketan hasten denean mozketak eta gainjartzeak daude etengabe. Hau solas espontaneoetan ohikoagoa da elkarrizketa formalagoetan baino, *Azpimarra* + saioa kasu, eta beraz, alde honetatik, *DidaGaztea* saioa solas espontaneoaren ezaugarrietara gerturatzen da. Honek hurren-bikote konplexuak sortzea areagotzen du, izan ere, hizlariak bere hitz-txanda amaitu aurretik solaskidetza agerraldien bitartez eten egiten dute interbentzioa, eta (B') bezalako hitz-txandak sortzen dira.

Aurretik aipatu da hedabideek beren estrategiak aldatu behar izan dituztela entzuleengana gerturatzeke, hala nola Elorduik (2016) ongi azaltzen duen bernakularizazioa adibide harturik. Solas honek solas espontaneoaren berbazko-estrategien antza duela ere ikus daiteke, eta *DidaGaztea* saioaren mintzamoldea deskribatzeko solaskidetza agerraldien ugaritasunak ere bide ematen du, testuingurua parametro informalago batean irudikatzen laguntzen duelarik. Gazteak euskarazko hedabideak entzutera erakartzeko saio bat egiteak erabaki asko hartzea eramango ditu kazetariak ziur aski, baina solasaren bidez mintzamoldeak hartzen dituzten ezaugarriek ere erakutsi ditzake egokitzapen beharrezko horiek.

### **3.6.2. *Azpimarra* + saioa emaitzak**

*Azpimarra* + saioan Maddalen kazetariak saioan jorratu behar dituzten gaiekin lotura duten pertsonak elkarrizketatzen dituzte. Elkarrizketa hauek diskurtso orientazioan informatiboak dira oinarrian, argudiaketa ere agertzen da, kargu eta eragile politikoak gonbidatzen direnez. Gaurkotasuna duten gaiak lantzen dira, gizarteko gai sozio politiko eztabaidagarriak ekarriz eta elkarrizketatuaren ikuspuntua garrantzitsua da (eragile soziopolitiko edo kultural baten ordezkari dena maiz). Elkarrizketatuei egunean hitz egiten ari diren gaiei buruzko galderak egiten dizkiete, eta erantzunak luzeagoak izan ohi dira hitz-txanda luzeagoak ekarriz, sakontasunez jorratutako erantzunetan. Kasu honetan, elkarrizketatzaile bakarra dago.

#### **3.6.2.1. Elkarrizketaren makroegitura**

Emaitzekin hasteko, *DidaGaztea* saioan egin den bezala, ikusiko da elkarrizketa honetan makroegitura mailan ere ongi bereizten direla hasierako, garapen aldiko eta amaierako zatiak, eta honek elkarrizketaren egitura formala dela adierazten du. Hona hemen Arnaldo Otegiren elkarrizketaren sarreran generoari edo mintzamoldeari dagozkion ohiko sekuentziak:



### **10.adibidea (AZPI2)**

- 1 (A) MI: esan bezala Arnaldo Otegi dagoeneko Azpimarraren sofa gorrian jesarrita/Arnaldo
- 2 Otegi / gabon eta milesker Azpimarrara etortzeagatik
- 3 (B) A: zuei gonbidapena egiteagatik
- 4 (A) MI: eh:: pentsatzen hasita / zail egiten zitzaidan pentsatzea Azpimarran / hainbeste
- 5 Azpimarra egin ditugun Azpimarra honetan etzarella sekula egon / baina errealitatea
- 6 horrelaxe da / sei urte terdi eta gero ba hor daukagu lehenengoa
- 7 (B) A: espirituan egon naiz / kartzelatik ikusten nun beraz ispirituan egon naiz
- 8 (C) MI: ispirituan egon zara

Adibide honetan, ikus daiteke elkarrizketatzaileak ongietorria eta eskerrak ematen dizkiola. Kasu honetan, testuinguruaren aurkezpena eta pertsonaiaren aurkezpena geroago egiten da, elkarrizketatua bera aurkeztu ondoren. Beste batzuetan lehenengo aurkezpena egiten da.

Ondoren, garapen aldia dator, eta bertan jorratu beharreko gaiak jorratzen dituzte, aipatu den bezala gai politikoak, informatiboagoak izan ohi dira. Hona hemen adibide bat:

### **11. Adibidea (AZPI2)**

- 44 MI: kartzelatik atera eta Elgoibarren: jendeaurrean aritu zinen hartan esan zenuen / [...]
- 47 apaldu egin direla Euskal Herrian / gauzak aldatu egin direla Euskal Herrian
- 48 A: nik esango nuke / animo estado bat badaola ez / nahiko orokorra hartuta // eta: [...]
- 51 daudela indar eta energia nahikorik gizarte edo jendarte aurreratu bat eraikitzeko eta
- 52 berdintasunean oinarrituta:: eraikitzeko // nik uste dut behar dela: (...)

Adibide honetan ikus daiteke garapen aldian testuinguru politikoari buruz dihardutela, gizarteari buruzko gogoetak egiten ari dira, gonbidatua aditua den gaiei buruz dihardute. Aipatu beharko litzateke elkarrizketa hauetan zehar galderak gailentzen direla, eta batzuetan galdera zuzenak egiten baditu ere. Ondoren, amaierari dagokionez, honako hau aurkitu genezake elkarrizketa honetan:

### **12. Adibidea (AZPI2)**

- 142 MI: zuk esan zenuen: / orain dela: / egun gutxi / zuk uste dezula / zuk ikusiko duzula
- 143 Euskal Herria askatuta
- 144 A: a bai ni konbentzituta nago ikusiko dudala bai bai
- 145 MI: Arnaldo Otegi espero det hemendikan aurrera sarri ikusiko dugula elkar / izan
- 146 eztabaida:: hauteskunde eztabaidatan / izan beste: era honetako elkarrizketatan /
- 147 milesker gabon gurekin iza::
- 148 A: bai zuei gonbidatzeagatik milesker
- 149 MI: estimatzen dizut benetan
- 150 A: ba

Adibide honetan ikus daiteke MI-k gonbidatuak aurretik esan duena oso era laburrean aipatzen duela, eta ondoren, eskerrak ematen dizkio gonbidatuari bertan egotearren, eta elkarrizketari amaiera ematen diote. *DidaGaztea* saioan bezala, ikusi da hedabideetako elkarrizketen makroegitura behar bezala errespetatzen dela, eta orain hurren-bikoteei erreparatuko zaie.

### 3.6.2.2. Hurren-bikoteen osaera

Atal honetan *Azpimarra* + saioko hurren-bikoteen sailkapena egingo da.

#### a) Hurren-bikote soilak.

Saio honetan hurren-bikote soil gehiagoz osatua dago, bereziki elkarrizketaren garapen aldian, baina irekitze fasean eta amaiera fasean ere badira batzuk. Adibidez, 10. Adibidean hurren-bikote soil bat ikus daiteke: 1.go lerroan MI-k hurren-bikote bati hasiera ematen dio eta A-k beste hitz-txanda batekin itxiera ematen dio hurren-bikoteari. Garapen fasean ere aurki daitezke hurren-bikote soil batzuk, halere, ez dira hurren-bikote soilak hemen gailentzen direnak.

#### b) Ebaluaziodun hurren-bikoteak.

Saio honetako ebaluaziodun hurren-bikoteak ez dira bete-betean *DidaGaztea* saioko ebaluaziodun hurren-bikoteak bezalakoak. Kasu honetan, ebaluazioa, edo laburpen moduko bat elkarrizketatuaren hitzartzean (A-n) hasten da. Saio honetan, ohikoa den hurren-bikote bat honakoa da: elkarrizketatuak elkarrizketatzaileak egindako galdera bati erantzuten dio, hau da, elkarrizketatuak (A) bat sortzen du eta gonbidatuak erantzun egiten du (B). Hurrengo hitzartzea, elkarrizketatzaileak hartzen duenean gonbidatuak esandakoaren inguruko laburpen edo ebaluazio txiki bat egiten du (13. adibidea. lerroa), edo haren inguruko gogoeta txiki bat egiten

du, nolabaiteko ebaluazio bat, hauek beraz, errektibo-iniziatiboak lirateke (Briz eta beste, 2003). Hitz-txanda berean ordea, beste hurren-bikote bat irekitzen du. Kasu honetan ebaluazioa ez da solaskidetza agerraldien bidez gauzatzen eta are gehiago urruntzen da solas espontaneoaren ezaugarri horretatik hurren-bikoteen osieran. Hona hemen adibide bat:

### 13. Adibidea (AZPI1)

143 MI: ba asko pozten gara // ba badakizu udako:: / abestiez ari garela apur bat uda giroa  
144 eman nahian gure saioari / zuk ze aukeratuko zenuke?

145 A: ba gaur eh: asteburua dela kontuan hartuta / San Pedron ta hainbat tokitan erromeriak  
146 / ba orain dela urte asko ni gazteagoa nintzenean / hor eh modan egon zan udan ez dot

147 gogoratzen ondo / nik emostaizuz musutxuek zan o eztoz gogoratzen abestiaren zera

148 zein zan Gozategina / bueno ba horrek oso oroitzapen onak ekartzen dizkidala jaigiroa /

149 uda / ba agian hori egin beharko [dugu hurrengo asteetan

150 MI: badakizu zenbat urte dituen kantak?

#### c) Hurren-bikote konplexuak

Saio honetan, ez da aurkitzen *DidaGaztea* saioan bezalako hurren-bikote konplexurik, izan ere, aurretik aipatu da *DidaGaztea* saioko hurren-bikote konplexuak mozketen bidez gauzatzen direla, baina saio honetan gainjartze eta mozketak gutxi aurki daitezke. Mintzajardun komunikatibo formala izatean eta gai politiko eta sozialak jorratzen diren elkarrizketa izanik adituari hitz egiten uzten zaio eta ez zaio mozten. Gainera, gainjartzeak daudenean ez da kazetariak elkarrizketatuaren jarduna bete-beteaz mozten duelako. Honez gain, gainjartzeak edo mozketak ez dira solaskidetza agerraldien bidez gauzatzen: nolabait ere laburpen oso labur bat egiten du aurretik elkarrizketatuak esan duenaren harira, (ikus 14. adibidea) eta “ez da egoera orekatu bat beraz” esaldia darabil. Uste da, honekin hizlariari bide eman nahi ziola esaten ari zen horretan gehiago sakondu zezan, bere ustez interesgarria izan zitekeelako esaten ari zena.

### 14. Adibidea (AZPI2)

31 (B) A: bai nik beti diñot /kontua dala botila hori bete bete egin behar dela / askotan denbora  
[...]

40 direla / baina portzentajeei erreparatzen badiegu oraindik ez da

41(C) MI: ez da egoera orekatu bat beraz

42 (B) A: ez / erdaldunegiak dira eta ba hor azkenean kopurutan / bueno kopuru majoak izan

#### 4. ONDORIOAK

Gure azterketan helburua, solasaren egituraketaren barnean, euskal komunikabidetako bi elkarrizketa saio hautatu eta hauetan hurren-bikoteen antolamendua ezaugarritzea izan da, testuinguru komunikatiboarekin dituen harremanak ezarri nahian. Bi saioak ezberdinak izanik eta ondorioz genero ezberdinetakoak, biak ala biak elkarrizketak izanagatik ere, ondo azpimarratu den bezala, bi saioen helburuak ezberdinak dira: *DidaGaztea* saioaren helburua ludikoa da, entzulea entretenitzea musikari, edo eguneroko gai “ez hain sakonez” hitz eginez, musikari buruz, ekitaldiei buruz... *Azpimarra* + saioa berriz, esan da informatiboagoa dela, gai sakonak eta politika gaiak tratatzen dituztelako. Lanaren helburuan ezarri da ikusi nahi dela baldintza komunikatiboek, zer nolako eragina duten elkarrizketa batean eta bestean, eta hau dena hurren-bikoteen osakeraren deskribapenaren bidez egin da. Emaitzetan ikusi bezala, hurren-bikote osatera desberdinak aurkitu dira bi saioetan.

Hurren-bikote soilei dagokienez, emaitzek erakutsi dute ez direla asko ez batean eta ez bestean, halere, gehiago aurki daitezke *Azpimarra* + saioan. *DidaGaztean* hurren-bikote soil bakan batzuk aurkitu dira, eta hauek batez ere irekitze eta ixte fasean ikus daitezke. *Azpimarra* + saioan hauek gailentzen ez badira ere, gehiago aurkitu dira.

Hurren-bikote ebaluaziodunei dagokienez, esan behar da *DidaGaztea* saioan honelakoak ere ageri direla, hizlariak bere esanarekin amaitutakoan elkarrizketatuek etengabe ebaluatzen dutelako elkarrizketatuaren jarduna. *Azpimarra* + saioan ebaluaziodunak sarritan ageri dira, baina emaitzetan aipatu den bezala hitzartze berean ebaluazio bat (C) eta galdera bat (A) ager daiteke. Mota honetakoak dira gehien gailentzen direnak, hau da, erreaktibo-iniziatiboak.

*DidaGaztea* saioan hurren-bikote konplexuen nagusitasuna nabarmentzen dela ikusi dugu, hizlariari etengabe jarduna eteten diete kazetariak, eta solaskidetza agerraldien txertaketen bidez hurren-bikote konplexuak sortzen dira. Oso ugariak eta nabarmenak dira hurren-bikote konplexu hauek *DidaGaztea* saioan. *Azpimarra* + saioan ez da honelako hurren-bikote konplexurik sortzen, mozketarik ez dagoelako, saioaren ezaugarri komunikatiboek hala agintzen edo eskatzen dutelako.

Hau dena ikusirik, hurren-bikoteen osatze eta kateatzean solasean zehar ikusi da hurren-bikote desberdinak gailentzen direla saio bakoitzean. Ondorioz, ikusi da testuinguruak eragin

nabaria duela hurren-bikoteen osieran. *DidaGaztea* saioaren baldintza komunikatiboek: pertsonaia kopuru handia, izaera ludikoa, gaien azaleko sakontasunak, oro har distantzia komunikatibo txikia izateak, erakutsi dute hurren-bikote konplexuak sortzen dituela, eta ez direla ‘galde-erantzun’ soilak. Solasari nolabait ere kutsu informala ematen diote, lagun arteko hizkerako zenbait ezaugarri ere bilduz hizkera dialektala ere erabiltzen duen (Elordui, 2019) mintzamoldean. Solaskidetza agerraldiek ere eragin handia dutela ikusi da. Alde batetik, *DidaGaztea* saioan solaskidetza agerraldiak etengabe aurki daitezke elkarrizketatzaileen jardunean, hurren-bikote konplexuak sortuz, bestalde, ikusi da, etengabe mozketak eta gainjartzeak gertatzen direla, eta hau ahozko solas espontaneoaren bereizgarrietako bat da. Ondorioz, esan daiteke uste genuen hipotesia bete dela, izan ere, hurren-bikoteen bidez solasaren egitura desberdina dutela erakutsi dute bi elkarrizketek, eta saio bakoitzaren komunikazio parametroek solasaren egituratze desberdina dutela. Hau honela izanik, ondorioztatu daiteke testuinguruak eragin zuzena duela hedabideek hautatzen dituzten berbazko-estrategietan, baina kontrara, esaten den era horrek ere sortzen duela testuinguru diskurtsibo bat testuingurua identifikatzen duena.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Alegria, A. (2009). Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai, *Euskera*, (54), 2-1, 2009, Bilbo, 771-809
- Alegria, A., Diaz de Gereñu, L. Eta Manterola, I. (2008). Ahozko komunikazioa. Ahozko diskurtsoa arautzen duten osagaiak eta arauak. Ohiko errutinak eta formulak. Ahozko komunikazioari dagozkion estrategiak. In Garcia-Azkoaga, I., Bujan, K. (Ed.), *Bigarren hezkuntzako irakasleak. Euskara eta Literatura. Gai hautatuak I* (73-106 or.). Sevilla: MAD.
- Barandiaran, A. (2017). Euskal Hedabideak, etorkizun bila. In Goirigolzarri, J., Landabidea, X., Manterola, I. (Ed.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. (105-122 or.). Bilbo: UEU.
- Briz, A., Hidalgo, A., Padilla, X., Pons, S., Ruiz Gurillo, L., Sanmartín, J., Benavent, E., Alberda, M., Fernández, M.J., eta Pérez, M. (2003). Un sistema de unidades para el estudio del lenguaje coloquial. *Oralia*, (6), 7-61.

- Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (2001). *Las Cosas del decir. Manual de análisis del discurso*, Bartzelona: Ariel.
- Charaudeau, P., eta Maingueneau, D. (2005). *Diccionario de análisis del discurso*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Ducrot, O., eta Schaeffer J.M. (1998). *Nuevo diccionario enciclopédico de las ciencias del lenguaje*. Madrid: Arrecife.
- Elordui, A. (2016). Elebakartasunik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan, *Uztaro*, (97), 31-50.
- Elordui, A. (2019). *Jon Gotzon Aldaparena*, estilizazio parodikoaren bidez «benetako» euskalduntasunaren mugak hausten. In Epelde, I., eta Jauregi, O. (Ed.), *Bihotz ahots. M.L Oñederra irakaslearen omenez*.(215-240)
- Etxebarria, I. (1996). Euskalkiak EITB-n: orain arteko jokabidea eta ondorioak, *Euskera*, (41), 547-555.
- Gabirondo, M. (2020). *Hitz txanden alternantzia euskarazko komunikabideetako hiru saiotan: Herri People, Azpimarra eta Dida saioen azterketa*. (Gradu Amaierako Lana). UPV/EHU.  
< [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/48503/GrAL\\_Gabirondo.pdf?sequence=3](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/48503/GrAL_Gabirondo.pdf?sequence=3) >  
[2023/05/31]
- Garcia-Azkoaga, I. (2015). Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, (96), 11-27.
- Gutierrez, E. (2019). *Errepikapenaren azterketa kazetaritzako ahozko bi testu generotan*. (Gradu Amaierako Lana). UPV/EHU.  
<[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/43337/TFG\\_Gutierrez.pdf?sequence=2&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/43337/TFG_Gutierrez.pdf?sequence=2&isAllowed=y)> [2023/05/31]
- Gutierrez, E. (2020). *Euskarazko kazetaritzako ahozko elkartrukeak aztergai: baldintza komunikatiboen eragina solasaren antolamenduan*. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*. (117), 173-208.
- Koch, P. eta Oesterreicher, W. (2007). *Lengua hablada en la Romania: español, francés, italiano*. Madril: Gredos.
- Larrazabal, E. eta Larringan, L.M. (2007). Irrati-elkarrizketa: ahozko genero formal baten deskribapena. In Idiazabal, I. eta Garcia I.M. (Ed.), *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan, Euskara errektoreordetzaren sare argitalpena*. (66-85or).

- Larrinaga, A. (2019). *Euskararen normalizazioa: Ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra*. Bilbo: UEU eta EHU.
- Morón, A., eta Garaio, B. (2020). Tokiko komunikabideak hizkuntza biziberritzeko eragile. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, (117), 107-135.
- Sacks, H., Schegloff, E. eta Jefferson, G. (1974): A simplest systematics for the organisation of turn-taking in conversation. *Language* (50), 696-735.
- Santamaría, Santamaría, C.D. (2011): *La entrevista periodística: ¿Género o Herramienta?*, (Doktorego tesia), Facultad de Ciencias de la Comunicación, Santiago de Compostela.
- Tusón, A. (2002): El análisis de la conversación: entre la estructura y el sentido. *Estudios de Sociolingüística*, (3.1), 133-153.

## 6. ERANSKINAK

### 6.1. *DidaGaztea* saioaren transkribaketak

**GD1: PATXUKO NICEri ELKARRIZKETA 5'40''**

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea/programak/dida/osoa/7060824/patxuko-nice-taldeak-laugarren-diskoa-kaleratu-du/>

Patxuko Nice taldeak laugarren diskoa aurkeztu du: Quim-en marrazkia. Hori dela eta, Sergio Patxuko (SP) taldeko kidea elkarrizketatuko dute Gazteako Dida saioan Julen Telleriak (JT), Edurne Garmendiak (EG), Antton Telleriak (AT), Xabin Fernandezek (XF) eta Jon Gotzon Aldaparenak (JGA).

- 1 JT: Sergio Patxuko / egun on
- 2 SP: egun o:n / [zer moduz zaudete?
- 3 JGA: (())
- 4 JT: aupa (())] zer moduz / ondo?
- 5 SP: oso ongi / gogoekin ya:
- 6 JT: bai?
- 7 SP: & aurkezpenak egiteko bai
- 8 JT: e ya zure bakarkako laugarren diskoa Sergio
- 9 SP: bueno e / talde bat da // e: baina bueno / Patxuko [naiz izenean // bai
- 10 JT: a osea que / bai hori da / a joder es que] / aber aber itxoin itxoin / barkatu / Sergio /
- 11 bale igual talde bat izango zarete baina taldean kasulidadez agertzen da bakarrik zure
- 12 izena tio
- 13 EG: ya
- 14 SP: bai // da bueno (barreak) / Patxuko Nice / ez? naiz [esaten da baina:
- 15 XF: hori da hori da
- 16 ?: bai]
- 17 JT: [Nice / ez da ba?
- 18 SP: baina: haiek] e: erabaki zuten nola / nire bidea / pues pixka bat luzea den eta pixka
- 19 bat ezaguna mote hori ba: (barrez)
- 20 JGA: ya
- 21 SP: hori aprobe txatu [behar dugu
- 22 AT: ya]
- 23 SP: = ta hori / ta [bueno baina:



24 JGA: ya] // gazteleraz esango duzu Patxuko yo!  
 25 EG: ya (barreak) // e // Sergio / hiperaktiboa da / talde askotan egon da eskarmentu  
 26 handiko  
 27 SP: & bai  
 28 EG: & bueno Joxe Ripiau Esne Beltzakekin ibili da / eta Patxuko Nicerekin laugarren  
 29 diskoa baina es que ibiltzen zea ere // beste gauza askotan Sergio  
 30 SP: bai / baina:: / bueno / hori da / niri gustatzen zaidana: da musika: eta beti: //  
 31 kanalizazioi bat egiten dut hortik eta / horregatik e ateratzen dira gauzak baina  
 32 EG: & claro  
 33 JT: & disko berri honek izena du // Quimen marrazkia  
 34 SP: bai / [historia oso polita  
 35 JT: zergatik Sergio?]  
 36 SP: bai mira / e:: / hasi genuen: / Patxuko Nicen: / proiektuarekin // ba: / ni orain dela:  
 /  
 37 pues ez dakit atzo egon nintzen Quimekin / eta esan zidan hamalau edo: hamazazpi  
 urte  
 38 [egin genuen zuzenean  
 39 JT: jo:der]  
 40 SP: = Katalunian // beste proiektu batekin e koadro bat / e / guk jotzen [genuen  
 bitartean  
 41 XF: a bai  
 42 JT: bai bai]  
 43 SP: = bera atzetik /// [eta:  
 44 XF: halako performance] bat  
 45 JT: bai  
 46 SP: bai // [eta:  
 47 JT: ze Quim da] / marrazkilari: Katalan bat  
 48 SP: & bai / marrazkilari bat e: bueno // oso: / ezaguna da: internazional eta hori baina  
 49 nik e: Joxe Ripiau (()) pues harremana berarekin // hartu: // elkarrekin hartu genun eta  
 //  
 50 eta / geroztik / ba beti e mantendu dugu  
 51 XF: & bai  
 52 SP: eta / pues e: // e berak egin zuen hori eta m: maketa edo lehenengo diska  
 53 ateratzerakoan egin genuen / jode zergatik ez dugu puzzlez // koadro horrekin e  
 egingo  
 54 dugu eta hori eta ateratzen badugu beste: beste: / disko bat / eta orain laugarren zatia  
 eta

55 bukatzen dugu koadroa eta:  
 56 XF: & ala:  
 57 SP: & quién nos quién nos iba a decir no? (barreak)  
 58 EG: ya (barrez) // [hori da  
 59 JT: quién nos] iba a decir [ezta?  
 60 EG: quién] nos iba a decir bai [e  
 61 XF: & hori da]  
 62 EG: = jolin / e: [paraleloan  
 63 SP: bai]  
 64 EG: = orduan da artea // margoa  
 65 SP: & bai / [biltzen  
 66 EG: musika]  
 67 SP: = baldin badituzu: lau CDak / ateratzen [da  
 68 EG: bai]  
 69 SP: = koadro bat  
 70 EG: a:  
 71 JT: & a lau CDekin [osatu ostra:  
 72 EG: collage bat]  
 73 JT: bale osea que [behar da  
 74 JGA: a:]  
 75 JT: = Patxuko Niceren / diskografia guztia // eta daukazu koadro bat? (barreak) // ojo  
 76 SP: bai // [bai / bai  
 77 JT: e: adibidez] / abesti honetan eta abesti hau da: / abesti hau da bi mila eta  
 78 hamazazpikoa  
 79 (atzetik dagoen abestiaren bolumena igotzen da 1'')  
 80 JT: [Juantxo  
 81 SP: bai]  
 82 JT: = Glaukomarekin batera daukazu hemen kolaboa // gero beste abesti honetan /  
 83 (atzeko abestia ozenago entzuten da) adibidez Aiora Erreterria ere entzuten dugu  
 84 (abestia 3'')  
 85 JT: Sergio Patxukorekin batera / Patxuko Niceren laugarren disko honetan Quimen  
 86 marrazkian // [Quimez

87 SP: bai]

88 JT: = gain beste norbaiten izenik? / beste kolaboraziorik izango dugu Patxuko?

89 SP: (barrea) e bueno / [bai e

90 JT: esan daiteke?] / ez dakit ez dakit eh?

91 SP: e izan ditugu ba idazleak / Oier Villa:r / Raul Artieda: ta / baina ez ez saiatu gara:  
/

92 pixka bat e: / e: egiten / egitea guk bakarrik [e: lan hau

93 AT: bale]

94 XF: [a bale

95 JT: aha

96 SP: e] m m: besteak izan zen ba Aiorak eta Juantxo beti kontzert / gure kontzertu:  
etara

97 edo gustatzen [zaio proiektua

98 JT: bai bai]

99 SP: = eta horrek horregatik e / aprobetxatu [(( )) pixka bat

100 AT: ya omenaldi baten moduko bat]

101 SP: = bai // eta: bueno / eta disko honetan / izan da pixka bat intimis intimoagoa ez?

102 XF: & aha

103 SP: baina bueno // e:: / ez dakit / bai dago kolaborazio asko baina bai musikariak eta:  
//

104 eta: hori / idaz-dazlea denari buruz ez?

105 JT: bale // osea bakar-bakarrik ere etzaretela aritu alegia orain / goizeko hamaika

106 terdietan / Baga Biga Faktoria tabernan / Donostian aurkeztuko duzue disko berria eta

107 gero zer Sergio?

108 SP: ba gero daukagu e rueda de prensa / eta martxoan hasiko gea ya zuzenean /  
daukagu

109 zazpi edo zortzi kontzertu aurkezteko proiektu [berria diska berria

110 JT: bai]

111 SP: = eta bueno / gero / udara begira: ta promo: ta: bueno gogoekin [eta beti:

112 XF: gogorra da?]

113 SP: = polita da: beti: / daukagu ilusioi berdina [disko

114 XF: ya]

115 SP: = bakoitzarekin / eta hori mantentzen duguna [(( ))

116 AT: bereziki] gustatzen zaizu zuri: / zuzenekoak eta ematea ezta Patxuko?

117 SP: bai dakat e: / sortzea gustatzen zait pilo bat baina gero: / azkenean gure proiektua

118 Jon Mariren ta / nire proiektua denez ba: / pixka bat ateratzen dugu: // pixka ba:t /  
 119 benetazko barruko: / garenok ez? o / garena ez? e: / orduan // bai / zuzenean ba / pixka  
 120 bat / hasten da pixka bat [serioago  
 121 XF: ya ya ya]  
 122 SP: = ze Patxuko Nice pixka bat intimoagoa da baina fiestan bukatzen du gero  
 123 AT: transformatzen da / [Patxuko  
 124 XF: eta ez beti  
 125 EG: martxoko] martxoko datak hola buruz / Sergio? / noiz dian kontzertuak /  
 126 aurrenengua martxoan noiz?  
 127 SP: martxoan hasiko gara: bueno / beti egiten dugu Erratzun / Zubipuntan  
 128 EG: & aha  
 129 SP: & e (( )) taberna batean mitikoa guretzako eta jendea: / zaindu gaitu pilo bat  
 130 EG: bale  
 131 SP: eta gero ya hasten gara // ba: / Bilbon e: // Azkena Ro:ck / e Doka:n // e daukagu  
 132 baita: / e Iruñan  
 133 JT: joder / [hiriburuetako bira egin behar duzue  
 134 SP: e: Zaragozan] / bai [bai bai bai  
 135 JT: Erratzu gehi hiriburuak] // (barreak) [gutxienez  
 136 EG: Zaragoza  
 137 SP: guretzako] bai guretzako da: / Erratzu da guretzako da katedrala  
 138 EG: & [mitikoa bai  
 139 JT: bale ezta? zuen hiriburua da Erratzu  
 140 SP: bai]  
 141 JT: eta gero hortik aurrera Euskal Herri osora  
 142 SP: bai bai / [bai  
 143 JT: guk erakusteko] hauxe daukagu / Esnatu Da momentuz singlea dena eta ya / diska  
 144 osorik / gaur goizeko hamaika terdietatik aurrera ezagutuko dugu ezta Sergio?  
 145 SP: bai bai / gogoekin ea gustatzen zaizuen diska // eta bueno // (barre) eta eskerrik  
 asko  
 146 ta dena baita // aukeragatik / jartzeko / abestia eta  
 147 JT: [sin dudarik gabe  
 148 ?: (( )) Patxuko]  
 149 JT: = berriz ere jarriko dugu eskerrik asko zuri [besarkada bat  
 150 EG: ikusiko gara]

- 151 JT: = eta ondo joan dadila [dena Patxuko!  
152 XF: aupa hi]  
153 JGA: benga: / agur  
154 SP: mila esker

**GD4:****ILE-APAINDEGI EKOLOGIKOAK 6'11''**

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea/programak/dida/osoia/6800719/audioa-ileapaindegi-ekologikoak/>

Maialen Atxagak (MA) ile-apaintzailea elkarrizketatua izan da Gazteako Dida saioan ile-apaindegi ekologiko bat daukalako, eta nabarmendu du produktu natural hauek onuragarriak direla bezero zein ile-apaintzaileentzat. Elkarrizketatzaileak: Julen Telleria (JT), Edurne Garmendia (EG), Jon Gotzon Aldaparena (JGA), Antton Telleria (AT) eta Xabin Fernandez (XF). Irratiko langile den beste Maialen (M) batek ere parte hartzen du.

- 1 JT: jan behintzat ia dena jaten dugula eko jaten dugu bio // [ya arropa / bueno dena edo
- 2 EG: bueno saiatzen gea // saiatzen gea]
- 3 JT: = behintzat e
- 4 EG: & bai
- 5 JT: & [kontzientzia bat badago hor ezta?
- 6 EG: bai bai kontzientzia bai] kontzientzia
- 7 JT: & arropa ere saiatzen gara ya erosten e ahal dela behintzat jasagarria / ez? [ari gara
- 8 ya
- 9 EG: uf:]
- 10 JT: = pixkat e: / kontzientiaren [jabe izaten
- 11 EG: zaila da] / zaila da
- 12 JT: = baina orain mobida da / ile-apaindegiak ere
- 13 EG: & hmhm:
- 14 JT: sartu direla zirkulo honetan
- 15 EG: & hombre
- 16 JT: ze ileapaindegietan e kimika asko egon: da orain arte / kimika esan nahi dut [e
- 17 produktu kimikoak e // ari naiz aipatzen
- 18 EG: & bai bai bai bai bai kimika] [kimika kimika
- 19 JGA: bai]
- 20 JT: & orduan besteak beste / Donostian larunbat honetan egin behar dute kongresu bat
- 21 EG: aha
- 22 JT: ileapaindegi / naturalena edo / produktu naturalak behintzat
- 23 EG: & [ho:ri da
- 24 JT: erabiltzen] dituzten [ile-apaindegiena

25 JGA: las hennas] edo

26 EG: bai // [bai bai bai

27 JGA: bai ez?]

28 EG: = hortik dijoa bai

29 JGA: [((O)

